

AIZU !!!



BIDEZKO MERKATARITZA KONTSUMO ARDURATSUA

Secretariado Diocesano de Pastoral Obrera
Langile Pastoralzako Elizbarrutiko Idazkaritza
Bilbao. 2006ko urtarrila. Aizu!!! 11. zenb.

Bilboko Joan Santuak elizan ospatu zan Otoitzaldiaz amaitu genduzan abenduaren 16ko ekitaldiak, Bilboko elizbarrutiak, **“Alkartasun Zeinuaren”** barruan, **“POBREZA CERO, HOY ES POSIBLE – POBREZIAREN HONDAMENA, GAURKO EKIMENA”** goiburupean aurrera eroan dauan kanpainari lotuta.

Kanpaina eta Elizbarrutiko Zeinua antolatzeaz ardatatu izan dan plataformatik guztiz positibotzat jo izan doguz ekintza biak. Orain, beste ardura bat dogu: egindakoagaz pozik, Milurtekoko Garapen Helburuak eta Pobreziaren Hondamena kanpainearen aldarrikapen batzuk ahaztu egin daikeguzala. Gu, Idazkaritza honetatik, MGH deritzanzen **“zuzia”** biztuta eukitzen saiatuko gara.



Otsailaren 12an, Esku Alkarturik erakundearen **“Munduko gosearen aurkako Kanpainaren”** bidez, pobreziaren aurka borrokatzeko eta txiroekin alkartasunez jokatzeko beste aukera bat izango dogunez, egokitzen jo izan dogu Bidezko Merkataritzaren eta Kontsumo Arduratsuaaren inguruko gogoeta batzuk egitea. Itxaropen honeguz egiten dogu: guzti hau lagungarri izan dakigula planetaren jasangarritasuna eta kaltetuenezko alkartasuna bermatuko daben beste bizimodu batzuk bilatzeko.

BIDEZKO MERKATARITZA

Nazioarteko merkatuaren arau bidegabeen aurkako aukera orokorra ez bada ere, bidezko merkataritza hegoaldeko ekoizle txiki eta langile batzuen bizi baldintzak hobetzen dituan tresna da; gainera, iparraldeko kontsumitzaileak erosterakoan hartzen dabezan erabakiek daben ahalmen eraldatzaileaz jabetuazoteko balio dau.

Gaur egun, bidezko merkataritzari zuzendutako 100.000 dendatik gora dago mundu osan zehar, baina denda arrunt batzuetan ere saltzen dira **“fairtrade”** (merkataritza zuzena) etiketadun produktuak. Salmentak 1.000 miloe euro ingurutakoak dira eta, azkenean, ohiko merkataritzan parte hartuz lortuko leukeena baino 80 miloe euro gehiago jadenen dabez ekoizleek merkataritza zuzenaren bidez.



Espanian, Setem GKEaren Bidezko Merkataritzaren Urtekariaren arabera, 2003an 11 miloe euro ingurukoak izan ziran sektore honetako salmentak, hau da, 2000. urtean baino %47 gehiago. Baina oraindik urrin gagoz Alemania, Holanda, Erresuma Batua eta Suitza lako herrialdeetako zifretatik, honeetan salmentak 50 miloetik gorakoak dira-ta

Bidezko Merkataritza orain hogeita hamar urtetik gora jaio zan Europan, iparralde industrializatuaren eta hegoalde txiroaren arteko merkataritza truke desbardin eta bidegabekoaren aurreko aukera apal lez. Hasiera batean, GKE eta talde batzuen lokaletan saltzen ziran Hirugarren Munduko produktuak; laster zabaldu ziran denda bereziak. Espainian 1986. urtean zabaldu zan bidezko merkataritzaren lehenengo denda. Beranduago sortu ziran EFTA edo IFAT lako nazioarteko alkarteetan sartzera ere iritsi ziran bidezko merkataritzako erakunde nazionalak (Espainian dagoan Koordinadora Estatala 1996koa da).

Sasoi horretan, beste urrats bat emon eta produktu honeek ohiko salmenta puntuetara eroatea komeni zala ikusi zan, GKE espezializatupei estu lotuta egon eitekezan kontsumitzaileen zirkulua zabaltzeko. Horrela sortu zan bidezko merkataritzaren zigilua sortzeko ideia, kontsumitzaileak errez bereiztu egizan produktuak ohiko dendetan.


Barrero ere, ziurtatze sistema nazioarte mailara zabaltzeko saiakerea egin zan eta 1997. urtean Fairtrade Labelling Organisation (FLO) lez ezagututako munduko koordinadora sortu zan, erizpide bateratuak ezartzeko. Mundu guztirako balioko eukean zigilu bakarra sortzea zan helburua, kontsumitzaileek argi eta garbi ezagutu egiezan honako produktuak eta produktu honeek oztopo barik ibili eitezan iparraldeko herrialdeetan zehar.

2002. urtean hasi zan zigilu nazional desbardinaren bateratze prozesua, "Fairtrade" marka eta bere logotipoa sortuz; honek, apurka-apurka, nazioetako etiketa desbardinak ordezkatu ebazan eta zigilurik ez eukanak atzerapen barik jadesteko aukerea eukan.



3 Alternatiba, Espainiako Caritas, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Konfederazioa, Bidezko Merkataritzarako Estatuko Koordinadora, Ekologia eta Garapena Fundazioa, Lankidetzeta eta Garapenerako Etea Fundazioa, Ekonomia Alternatibo eta Soliadariorako Ekimenak, Intermón Oxfam Fundazioa eta SETEM Federazioa erakundeek bultzatutako Bidezko Merkataritzako Produktuen Zigilua Alkartea arduratzen da etiketa honek emoteaz.

Bidezko Merkataritzarako Espainiako Koordinadoraren arabera, ondorengo erizpideak hartuko dabek kontuan ekoizleek: soldata duinak ordaindu eta lan baldintza duinak ezarri; mozkinen zati bat alkartein oinarritzko beharrianak asetzera zuzendu; partehartzea bultzatu; ingurugiroa errespetatu; kalitatezko produktuak egin. Banatzaileek prezioaren zati bat aurretiaz ordaindu behar dabe, epe luzerako merkataritza hartuemona izan eta sentsibilizatze eta produktu honeen sustatze lanak hasi, ohiko produktuekin alderatuz, "gainprezioa" ordaintzeko aukerea emongo dabek prezio zuzeneko merkatuak lortzeko.



Bidezko merkataritza protagonisten (batez ere bitartekari eta banatzaileen) mentalitatea aldatzen joateko eta jarduerak merkataritza jasangarriagorantz zuzentzeko bide lez aurkezten da.

KONTSUMO ARDURATSUA

Kafe-kikara bat hartzen dogunean, Hegoaldeko ekoizleak ordaintzen dogunaren %7a baino ez dau jasotzen; gutako edozeinek soinean eroan daiken alkandora, seguruenez, inguru frankoan, herrialde bateko esparru legal arruntaren mugetatik kanpo, ekoiztuko zan, eta alkandora honeek egiten dabezan lantegietan lan egiten daben beharginek lanaldi nekagarriak izango dabez, baina ez lan eskubiderik eta lanaren truke jasotako soldatak urriak izango dira. Pakistanen, Punjab barrutian, 5 eta 12 urte bitarteko 7.000 ume inguruk 14 eta 16 ordu lanean emoten dau, erabateko baldintza zapaltzaileetan, futbol baloiak josten.

Aldatu ete daikegu errealitate hori gure kontsumitzaile izatetik? Bai, aldatu daikegu, nahiz eta epe luzera izan, bidezko merkataritzako produktuak erosiz. Baina epe laburrera ere aldatu daikegu, enpresetan eraginez, funtsezko eskubideekin bat datozen jarduerak izan dagiezan.



Kontsumitzaileok ados jarriko bagina eta danok beste era batera kontsumitzea erabagiko bagendu, euren jokabidearen arabera, enpresa batzuetan eragina izateko gaitasuna izango geunke. Eta hau gero eta gehiago gertatuko da etorkizunean. Ez dagigun ahaztu kontsumitzaileen indarra gero eta haundiagoa dana. Kasu gehienetan ikusezina dan indar horrek, neurri batean, arduradun egiten gaitu. Horregaitik, kontsumitzaile garanez, ekintzaile lez jokatu behar dogu eta erantzukizunez kontsumitu.

KONPROMISORAKO ORDUA

Publizitate eta merkatuak proposatzen dauan neurri bako eukitean oinarritutako ezinezko zorionaren aurrean, gizatasun, askatasun, alkartasun eta atsegintasun gehiagoko beste bide bat dago. Horretarako, beste era batera bizitzen ikasi behar dogu, egin daikegunaz, aztertu behar dogunaz eta hartu behar dogun konpromisoaz jabetuz.

Egin

- Ez erosi ezta kontsumitu ere, osasunaren kalterako dan ezer.
- Ez gastatu ezertarako balio ez daben gauzetan.
- Ez bota ez jatekorik, ez erroparik, ez oinetakorik ez ezer baliagarriarik. Birziklatu.
- Barau egin (jan eta erostean) laguntzeko; *“nik ezin badot, izadiak ezin dau”*; *“nik ezin badot, txiroek ezin dabe”*.
- Behar dana idatzi erostera joan baino lehen eta idatzitakoa erosi.
- Ez erosi markek eraginda.

Pentsatu

- Erosi eta kontsumitzerakoak askeak garan edo beste batzuek gura dabena egiten dihardugun aztertu.
- Ahalik eta gehien jakin erosten eta kontsumitzen dogunaz: zelan egiten dan, zeinek egiten dauan, zeinen onerako dan, ze ondoriorako dauan Hirugarren Mundurako eta naturarako.
- Gauzek, erosteak ez dauala zorionik emoten jakin.
- Ume eta gazteak neurritasunean, ahaleginean, nortasuna izatean hezi.
- “Danek egiten dabe”, “danek dauke” hori gainditu.
- Arrazoi zuzenen batengatik –esate baterako, umeen esplotazioa- produkturen baten kontsumoari uko egiteko kanpainetan parte hartu.
- Gobernuak kontsumo arduratsua eta benetan askea lortzeko legeak jarri dagiezala: argitasuna etiketetan, jatorrizko prezioetan eta azkenean, erosleentzako eskubideak, argitasuna publikitatean...

Konprometitu

- Izadiari eta txiroei gehien laguntzen deusena erosi.
- Hurran ekoizten dana urrin ekoizten danaren aurretik erosi.
- Beharrezkoa erosi eta ez ezertarako behar ez doguna.
- Kontsumitzaileen alkarteetan eta euren aldarrikapen ekintzetan parte hartu.
- Herrialde txiroei laguntzen deusena erosi batez ere, ez gehiago dabenak aberasten dituana.
- Ez sekula zorrik egin beharrezkoak ez diren gauzekin.
- Arau lez, garraio publikoa erabili.
- Bidezko merkataritzako dendak ezagutu eta honeetan erosi. Honeen barri emon lagun eta ezagunei. Gauza bera egin inbertsino etikoekin.
- Era iraingarri, manipulatuzaile, guzurti edo inposatuzailean iragarritako produktuen kontsumoari boikot egin.

IRAKURKETA SINISTEDUNERAKO

Kontsumismoa bidegabea da. Batzuek guztionak diran ondasunak xahutzen dabean bitartean, beste batzuk gosez hiltzen dira. Gizon aberatsaren eta Lazaro txiroaren parabolak argi eta garbi adierazoten dau. **(Lk 16, 19-31)**

Kontsumismoak diruzalekeria sustatzen dau. Diruzalekeriak gero eta gehiago eukiteko egarri amorratua eragiten dau gizakiagan, besteez arduratu barik eta, askotan, besteen kontura. Amos profeteak luxu arduragabea salatzen dau. **(Amos 6,3-10)**

Kontsumismoa idolatria da. Kontsumitzaileak larritasunezko jokaeretara daraman barruko mundua eraikitzen dau. Kontsumismoa bere seme-alabak eurak ere irentsi egiten dituan “jaungoiko” barria da. **(Filipotarrei 3, 19)**



Kontsumismoak alkertasunerako ezgaitzen gaitu. Kontsumitzaileak bere *gurari* eta *"beharrizanen"* munduan irauten dau. Ez dau bere interesen zirkulutik harago begiratzen eta ez da bere oinarrizko beharrizanak ase ezinik dagozan pertsonak, txiroak eta baztartuak ikusteko gauza. Jesusek salatu egiten ditu jarrera insolidarioak. **(Mt 25, 34- 46)**

Kontsumismoa miope da doakotasunerako. Kontsumo-gizartea guztiz merkantilista da. Gizarte eredu honetan ez dago norbere buruaren eskeintza eta emoterako lekurik. Kontsumitzaileak ez da Jesusen berbak ulertzeko gauza. **(Eginak 20,35)**

Zoriona kontsumismotik harago dago. Jesusek zero-mugea zabaltzen deusku eta zorionera beste bide batzuetatik gozala dinosku. **(Mt 5,1-6)**

Itaunketea taldeetarako

1. *Zer suertatu jatzu deigarrien AIZU honetan? Zergaitik?*
2. *Sekula pentsatu bako zeozer ekarri deutsu burura?*
3. *Kontsumo arduratsuak honelako galderei erantzun beharko leuskiela esan da: badakit zer erosten dodan?, zergaitik erosten dot?, ze errealitate dago erosten eta kontsumitzen dodazan produktuen atzean? Egin dozuz noizbait galdera honeek gauzak erosterakoan?*
4. *Zer deritzezu "KONPROMISORAKO ORDUA" atalean esaten diranei?*
5. *Kristinau lez, sentitu dozu zure kontsumo eta erosketa ohituretan aldaketaren bat sartzeko deirik? Zehaztu konpromisoa.*
6. *Egin daikegu zerbait parrokan, Pastoral Barruti edo Eskualdean, beste batzuek bidezko merkataritzak eta kontsumo arduratsuak txirotasunaren aurkako borrokan daben zeresanaz jabetu daitezana?*

**Secretariado Diocesano de Pastoral Obrera
Langile Pastoraltzako Elizbarrutiko Idazkaritza
Plaza Barria 4,2º 48005 Bilbao, tf.a: 944795617
e-mail:pobrera@barria.net/www.barria.net/pobrera**

BIDEZKO MERKATARITZAKO DENDAK BIZKAIAN

EMAUS (Emaus Traperoak)

Santa Maria, 1
48005 Bilbao

INTERMON OXFAM

Alameda Urquijo, 11
Bilbao

EMAUS GIZARTE FUNDAZINOA

Basagoiti etorb., 56
48991 Algorta - Getxo.

MERCADECO

San Felicísimo plaza, 1 - Etxabea
Deusto - Bilbao

KIDENDA

Viuda de Epalza, 6
48005 Bilbao

Kidendaren lurraldeetako taldeak:

Bilbon: Abando San Fernando Kidenda.
 Abando Albia Kidenda.
 Begoña Kidenda.

Santurtzi Kidenda.

Portugalete Kidenda.

Sestao Kidenda.

Barakaldo kanpoaldea Kidenda.

Galdakao Kidenda.

Secretariado Diocesano de Pastoral Obrera
Langile Pastoraltzako Elizbarrutiko Idazkaritza